



Gipuzkoako Elay enpresako langile batzuek euskaraz hitz egiten dute. Foto: Javi Colmenero

# ‘Enpresarean.eus’, euskal enpresei eta profesionaleri zuzenduriko webgunea

Bai Euskarari Elkarteak ataria berri du lan munduaren elkarlana errazteko eta negozio-ideiak sustatzeko

✦ Begoña Martín

**GASTEIZ** – Nahiz eta euskararen datuak hobetzen ari diren Euskal Herri osoan, eta gero eta pertsona gehiagok euskaraz aritzeko gaitasuna duten, lan munduan erabiltzen den hizkuntza nagusia gaztelania da gaur egun. Hori horrela izanik, hainbeste enpresa esfortzu handiak ari dira egiten lan munduan euskararen presentzia areagotu eta normalizatzeko asmoz, hau da, euskarak behar bezalako presentzia izan dezan enpresa arloan.

Lan mundua euskalduntzeko proiektuari izugarritzko bultzada eman diote. Euskal Herrian gero eta enpresa gehiago ari dira euskara euren eguneroko kudeaketan barneratzen, bezeroekiko zein hornitzaileekiko harremanetan erabiltzen, hizkuntza paisaian, barrura eta

kanpora begira. Aldi berean hainbat talde euskaltzalek oso argi daukate zein den helburua: euskaraz bizitzeko salatu behar da, eta bai kalean bai lan munduan euskara gehiago entzun behar da. Horregatik, enpresa arloan euskara sustatzeko helburuarekin hasitako bidean sakondu nahi dute, gero eta langile gehiagok bizitza profesionala euskaraz egiteko asmoz.

Adibide gisa, euskaraz lan egin nahi duten enpresen eta profesionalen arteko harremana eta elkarlana sustatu nahi du 2012. urtetik Enpresarean proiektuak. Bai Euskarari Elkarteak proiektuaren sustatzailea da (lan mundua euskalduntzeko estrategikoki lanean dihardu 2007. urtetik) eta, besteak beste, Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Laboral Kutxaren eta SPRIren babesa du Enpresarean ekimenak.

Azken asteotan Bai Euskarari Elkarteak *Enpresarean.eus* euskal profesionaleri eta enpresei zuzenduriko webgunea berrikoa aurkeztu du, haien artean baliabideak, esperientziak edo jakintzak partekatzeko, elkarlana errazteko edo negozio-ideiak sustatzeko helburuarekin.

Enpresarean-ek helburu nagusi hauek ditu: euskaraz lan egiten duten edo zerbitzuak eta produktuak euskaraz eskaini nahi dituzten profesionalen eta organizazioen elkarlana izatea; Enpresarean Azoka eta Foroak sustatzea eta proiektua esparru berrietara zabaltzea eta eza-

**Baliabideak, esperientziak edo jakintzak partekatzeko, elkarlana errazteko edo negozio-ideiak sustatzeko helburua du atariak**

gutaraztea; enpresen eta profesionalen artean baliabideak, esperientziak edo jakintzak partekatzea, elkarlana sustatzea, negozio-aukerak handitzea eta salmentarako gune bat eskaintzea. Hori dena, euskaraz egiten dute.

**TELEBISTA BEREZIA** Webgunea Enpresarean proiektuaren zutabe moduan aurkeztu dute, eduki interesgarria modu irekian partekatzeko erakusleho gisa. Profesionalak eta enpresak funtzionalitate hauek, besteak beste, izango dituzte gailu ezberdinetan erabili ahal izateko: Enpresarean TB, agenda profesionala, formaziorako aukerak, enpresa munduko berriak eta sareko parte izateagatik aukera bereziak.

Enpresarean TB da berrikuntza nabariena webgune berriuan. Bai Euskarari Elkarteak martxan jarri-

tako telebista berezia. Ikus-entzuzko biltegi bat ere izango du. Bertan, Enpresarean proiektuaren markoan garaturiko ekitaldi guztiak (enpresa azoka, foro, hitzaldi, ikastaro...) egongo dira ikusgai. Gainera, aurrerantzean, datozen ekitaldien berri emango du, agendan jaso eta zuzenean izena emateko aukera izateko. Ikastaro, hitzaldi eta foro digitalak ere eskainiko dira, enpresa ezberdinen etxeetatik mundu osoa. Nahi duenak zuzen-zuzenean ikusi ahal izango du, eta saioa Enpresarean TB ataletik zabalduko da. Helburua da euskal profesionalak eta enpresak, euskarazko eduki profesionalak nahieran izatea, nahi dutenean, nahi duten lekutik, nahi duten unean.

**AGENDA PROFESIONALA** Ekitaldi guztiak, digitalak eta presentzialak, pro-



## Rober Gutiérrez

BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIAREN ELKARTEKO ZUZENDARIA

# “Euskaraz lan egitea eta zerbitzuak euskaraz eskaintzea dira denon erronkak”

**Bai Euskarari Elkarteak arlo sozioekonomikoan euskara sustatzea du helburu nagusia eta, bide horretan, profesionaleri eta enpresei balio gehigarria eskaintzea**

✦ B. Martín

**GASTEIZ** – *Enpresarean.eus* berritu du Bai Euskarari Elkarteak, euskal enpresa eta profesionalentzako ataria. Berrikuntza ugariarekin aurkeztu dute: Enpresarean TB, zuzenekoak, bideoak nahieran, albisteak, profesionalen sare eta agenda... euskal enpresa eta profesionalen sarea indartzeko helburuarekin. **Zein enpresa motak erabiltzen du *Enpresarean.eus* webgunea? Zein arlotan lan egiten dute (zerbitzuetan, industrian...).**

–Izaera eta tamaina guztietako entitateak eta profesionalak ari dira parte hartzen hasieratik Enpresarean proiektuan, sektore guztietakoak: zerbitzuak, finantzak, industria, merkataritza, formazioa... Esperientzia eta ibilbide luzeko profesionalak edo ekintzaile gazteak. Horren adibidea da antolatutako foro, jardunaldi edo azoketan parte hartu duten enpresen eta profesionalen aniztasuna. Besteak beste, Enpresarean osatzen duten entitate batzuk dira: SPRI, Laboral Kutxa, Gipuzkoako Foru Aldundia, Adeg, Elkargi, Mutualia, Orkestra, unibertsitateak eta Puntuueus.

**Orain dela gutxi, webgunea berritu duzue. Profesionalen behar berriei erantzuteko asmoz?**

–Gogoratu nahi dut Bai Euskarari ziurtagiria kudeatzen dugula eta ziurtagiridunek ikustarazten digu-

tela alor sozioekonomikoan zenbait hutsune eta gabezi daudela euskaraz lan egin ahal izateko. Euskaraz lan egiten duten enpresen eta profesionalen kopurua gora doa eta horiei baliabideak, tresnak eta proiektuak eskaini behar zaizkie. Enpresarean ere, 2012. urtean sorturiko ataria berritzeko beharra ikusi dugu, diseinu eta funtzionalitate aldetik erabiltzailearen interes berrietara egokitzeko. Enpresarean edozein motatako enpresei eta profesionaleri bideraturiko atari irekia da, elkarlanerako plaza publiko gisa aurkezten dena. Webgunea intuitiboa da eta profesionalak bilatzen duten hori erraz eta azkar topatuko dute. Berehalakotasuna eta edukien partekatzeko erraztasuna dira webgunearen ezaugarri nagusiak. Izan ere, euskal profesionalak ekitaldi, ikastaro, hitzaldi eta abarren berri emateko aukera izango dute eta, ondoren, horien kronikak edo bideo laburpenak argitaratzeko aukera ere. Gainera, berrietasun garrantzitsu bezala, Enpresarean TB atalean, zuzenekoak emateko aukera izango dute enpresek. **Zeintzuk dira webgunean Euskal Herriko profesionalak bilatzen dituzten zerbitzurik erabilenak?** –Orain arte, berrien atala eta ekitaldiarena izan dira erabilienak; alde batetik, enpresa sareko edozeinek zabaldu zitzaizkien albisteak eta, bestetik, Enpresarean Azoka eta foroaren oihartzunagatik. Aurrerantzean, enpresa munduko albisteekin eta foro zein azokan kronikekin batera asmoa da Enpresarean TB eta agenda profesionala ere sustatzea eta indartzea, euskal profesionalen sareari eduki interesgarria eskaini eta harremanak areagotzen

**“Euskal profesionalak ekitaldi, ikastaro, hitzaldi eta abarren berri emateko aukera izango dute”**

**“Alor sozioekonomikoan zenbait hutsune eta gabezi daude euskaraz lan egin ahal izateko”**

**“Izaera eta tamaina guztietako entitateak ari dira parte hartzen Enpresarean proiektuan”**

laguntzeko.

**–Zeintzuk dira sarean parte hartzen duten enpresek lortzen dituzten ekarpenak?**

–Azpimarratzeko modukoa da euskal profesionalak komunitatean parte hartzen dutela. Beste enpresa eta profesional batzuekin harremanetan egongo direla, negozioak egiteko aukerak handitu daitezkeela. Bestetik, enpresek eta profesionalak aurkituko duten ekarpen nabariena euskara da. Edukiak, hitzaldiak, formazio saioak, foroak etab. euskaraz “kontsumitzeko” aukera izango dute, bai eta bestelako enprekin zuzenean harremanetan izango direla. Eta ez hori bakarrik; enpresentzat erakuslehoia ere izango da, euren albiste, ikus-entzunezkoak, ekitaldi presentzialak, agenda... zabalitzeko aukera izango dutelarik. Baina, esan bezala, euskara da eramango duten balioa, euskaraz lan egin ahal izatea eta bezeroei zerbitzuak euskaraz eskaintzea baitira denon azken erronka. ●

fesionaleri egokituriko agenda batean jasoko dira. Hori horrela izanik, erabiltzaileek hilero ekitaldi interesgarriak egutegian gorde eta enpresa sareko harremanak areagotzeko aukera izango dute. Aipagarria da, era berean, agenda horretan ez direla soilik Enpresarean proiektuko ekimenak zabalduko; sareko profesionalen agenda horretan euren proposamenak argitaratu eta partekatu ahal izango dituzte. Helburua da euskaratik eta elkarlanetik agenda profesional bat sortzea, euskal enpresen eta profesionalen arteko sarea ehundu eta hartu-emanu sustatzeko.

Beste aldetik, webgune berriak blog-a mantenduko du, non sareko parte-hartzaile guztiek eduki interesgarriak modu irekian partekatzeko aukera izango duten. Bertan jasoko dira hainbat gairen inguruko albisteak, esate baterako: enpresarean azoka, enpresarean foroak, hitzaldi bereziak, ikastaroak, etab.

Profesionalen komunitatean sartzea oso erraza da. Webgunearen bidez egin behar da izen-ematea, profesional edo enpresa bezala. Hori egindakoan, erabiltzaileak sareko profesionalekin harremanetan jartzeko aukera izango du, ideiak, iruzkinak, iritzia eta eskakizunak partekatzeko. ●

